



# Euskal Turismoaren Begiralea Monitor del Turismo Vasco

**2006an ETORRITAKO BIDAIARIEN MUGIMENDUA GUZTIRA  
ESTABLEZIMENDUEN GUZTIZKOA: HOTELAK, LANDA TURISMOA ETA  
KANPINAK**

**MOVIMIENTO TOTAL DE VIAJEROS RECIBIDOS EN 2006  
TOTAL ESTABLECIMIENTOS: HOTELES, TURISMO RURAL Y CAMPINGS**



# 06

Euskal Turismoaren Begiralea | Monitor del Turismo Vasco

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

#### **Argibidea/Información**

Tlf.: 945 01 99 61

Fax: 945 01 99 31

E-mail: [piblituris@ej-gv.es](mailto:piblituris@ej-gv.es)

Web: [www.Euskadinet/turismo](http://www.Euskadinet/turismo) (Euskal turismoaren estatiska orokarrak/Estadísticas generales del turismo vasco)  
[www.eustat.es](http://www.eustat.es)

**Argitaraldia:** 1.a, 2007ko ekaina

**Edición:** 1ª, junio 2007

**Ale-kopurua:** 2.600

**Tirada:** 2.600 ejemplares

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa  
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila  
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco  
Departamento de Industria, Comercio y Turismo

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
**Edita:** Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Lanketa:** IKEI

**Elaboración:** Parque Empresarial ZUATZU - Edificio Urumea Planta 1ª  
Zubiberri Bidea, 31 - 20018 Donostia-San Sebastián

**Fotokonposatuta:**

**Fotocomposición:** mccgraphics

**Inprimaketa:**

**Imprime:** mccgraphics

**Lege Gordailua:**

**Depósito Legal:** VI-292-06

## SARRERAK ETA GAU KOPURUA | ENTRADAS Y PERNOCTACIONES

2006ko datuei erreparatzen bazaie, 2.274.694 bidaiari iritsi dira gureru eta 4.622.125 gau erregistratu dira, establezimendu guztiak batera hartuta (hotelak, landa-turismoa eta kanpinak). 2005eko datuekin alderatuta, +% 7,8ko eta +% 9,8ko hazkundeak egon dira hurrenez hurren.

2.274.694 entradas de viajeros y 4.622.125 pernoctaciones registradas por el conjunto de establecimientos (hoteles, turismo rural y campings) ilustran la actividad turística del año 2006. Respecto a 2005 supone un crecimiento del +7,8% y +9,8%, respectivamente.

### 2006: egoera berria eta aldekoa

**O**6-l amaieran euskal turismoaren sektorerako inoizko albisterik pozgarriena iritsi zen (su-eten iraunkorra). Horri esker, turismo-norakogisa lehiatzeko aukerak indartu ziren eta, era berean, beste norako batzuk eskaintzen dituzten produktu berrien garapena lortu zen.

Bake-eszenategiaren eragin positiboaz gain, 2006ko emaitzak sektorean garatutako eta urtetik urtera indartzen ari den heldu-

tasun-prozesu baten ondorioz lortu direla azpimarratu behar da.

Ekitaldi amaieran, horrenbestez 2005ean baino 163.620 bidaiari gehiago iritsi dira EAERA (+% 7,8) eta 412.000 gau gehiago erregistratu dituzte (+%9,8); ondorioz, bi kasuetan iazko hazkunde-tasak gainditu direla esan daiteke (+% 5)

### 2006, un año de coyuntura favorable

**A** finales de I-06, el sector turístico vasco se hizo eco de la mejor noticia que Euskadi podía recibir (alto el fuego permanente) y que le iba a permitir mejorar en el exterior su apreciación como destino competitivo e, igualmente, posibilitar en condiciones similares a las de otros destinos, el desarrollo de nuevos productos.



Además del efecto positivo del escenario de paz, los resultados

de 2006 deberían entenderse también como consecuencia de un proceso de madurez del sector, que evoluciona favorablemente año tras año.

El ejercicio se ha cerrado efectivamente con un aumento de 163.620 viajeros (+7,8%) y 412.000 pernoctaciones (+9,8%) respecto a 2005 lo que permite superar en ambos casos las tasas de crecimiento del año pasado (+5%).


Sarrera eta igarotako gau guztien bilakaera. 2002-2006. Euskadi

Evolución de las entradas y pernoctaciones totales. 2002-2006. Euskadi



Igarotako gau guztiak ostatu-motaren arabera. 2006. Euskadi

Pernoctaciones totales según tipo de alojamiento utilizado. 2006. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores. INE, Encuesta de Ocupación en Alojamientos Turísticos

Hoteletan daude eskainitako plazen % 65,5 (33.914 plaza/eguneko). Hala ere, hotelaren garrantzia are nabarmenagoa da kontuan hartzen bada sarreraren % 88,3 eta erregistratutako gauen % 83,5 hoteletan egin direla.

Los hoteles representan el 65,5% de todas las plazas disponibles (33.914 plazas/día) pero su importancia como alojamiento es mayor al acoger el 88,3% de las entradas y el 83,5% de las pernoctaciones.

Sarrera-kopuruak hotelen kasuan ezagutu du bilakaerarik positiboena (+% 10), eta hoteletan igarotako gau-kopuruak gora egin badu ere (+% 11,5), gorakada altuagoa izan da landaturismoko establezimenduetan (+% 16,2). Kanpinetan erregistratutako datuek behera egin dute: % 14 gutxiago izan dira bertara egindako sarrerak eta % 6 gau gutxiago erregistratu dira.


Jatorriaren arabera, erregistratu diren 412.000 gauen artean % 66 beste autonomia-erikidego batzuetako bisitariak egin dituzte (+% 11); % 23 turista atzeritarrek egindakoak dira (+% 7,5), eta gainerako % 11 euskal turistek erregistratu dituzte (+% 8).

La evolución más positiva de las entradas corresponde a los hoteles (+10%) pero su mejora en las pernoctaciones (+11,5%) es superada por la que registran los establecimientos de turismo rural (+16,2%). Mientras los campings evolucionan a la baja y experimentan una pérdida del -14% de entradas y -6% de pernoctaciones.

Por procedencia, el 66% de las 412.000 nuevas pernoctaciones, corresponden al turismo de otras CC.AA. (+11%) mientras otro 23% proceden del turismo extranjero (+7,5%) y el 11% restante al turismo vasco (+8%).


Igarotako gau guztien bilakaera jatorriaren arabera. 2002-2006. Euskadi

Evolución de las pernoctaciones totales según procedencia. 2002-2006. Euskadi



Jaatorriaren arabera/Según procedencia


- Euskal a.e./C.A. de Euskadi
- Estatua Gainerakoa/Resto del Estado
- Atzerria guztira/Total extranjero



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores. INE, Encuesta de Ocupación en Alojamientos Turísticos

Guztizko plaza-kopuruaren eta guztizko enpleguaren bilakaera. 2002-2006. Euskadi

Evolución de las plazas totales y empleo total. 2002-2006. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores. INE, Encuesta de Ocupación en Alojamientos Turísticos

**B**idaiaren mugimenduaren hedapenarekin batera, zabaldu egin da ostatu hartzeko plazen eskaintza. 2005ean sektore honek 32.000 plaza/egunean eskaintzen bazituen, 2006an 33.914 dira (+% 6). Plaza horietatik % 64,5 hoteletan daude (+% 10), ia % 9 landa-turismoko establezimenduetako plazak dira (+% 12,6) eta gainerako % 27 kanpinetakoak (-% 4). Bizkaian erregistratu da dinamismorik altuena.

Sektorean lan egiten duten pertsonen dagokienez, 4.360 pertsonak lan egiten dute (+% 8,7), eta horietatik % 90ek hoteletan (+% 9).

**L**a expansión del movimiento de viajeros se ha visto acompañada también por una expansión de las plazas de alojamiento disponibles. Si en 2005 el sector ofertaba 32.000 plazas/día en 2006 son 33.914 (+6%). De éstas, el 64,5% son hoteleras (+10%), casi el 9% de turismo rural (+12,6%) y el 27% restante de campings (-4%). El mayor dinamismo corresponde a Bizkaia.


En cuanto al personal ocupado, el sector ocupa a 4.360 personas (+8,7%), de las cuales el 90% están en hoteles (+9%).

*Hoteletako plazen eta landa-turismoko establezimenduen plaza-kopuruaren hazkunde-erritmoa biziagotu egin da (+% 10 eta +% 12,6, hurrenez hurren), eta horiek dira 2001etik lortutako tasarik altuenak (+% 7,8 eta +% 10, hurrenez hurren, 2003an).*

*Se acelera el ritmo de crecimiento de las plazas hoteleras (+10%) y de turismo rural (+12,6%) que presentan las tasas más altas desde 2001 (+7,8% y +10% respectivamente en 2003).*

Ostatu-plazen eskaintzaren eta langileen banaketa establezimendu-motaren arabera. 2006. Euskadi

Distribución de la oferta de plazas de alojamiento y personal ocupado según tipo de establecimiento. 2006. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores. INE, Encuesta de Ocupación en Alojamientos Turísticos

HOTEL ESTABLEZIMENDUAK | ESTABLECIMIENTOS HOTELEROS

SARRERAK | ENTRADAS

*2006an EAEko 390 establezimendutan izandako sarrerakopuruak % 10eko gorakada ezagutu du eta lehen aldiz lortu da bi milioi bidaiariren kopurua gainditzea (1,8 2005ean).*

*En 2006 los 390 hoteles del País Vasco han recibido un 10% más de entradas y superan por primera vez los dos millones de viajeros (1,8 en 2005).*

**H**otel-establezimenduen jarduerari dagokionez, 2006. urtea, 2004rekin batera, azken bost urteetako urterik dinamikoenetako bat dela esan dezakegu, izan ere, 2005ean baino % 10 sarrera gehiago erregistratu dira.

Azken bost urteetako tasei erreparatzen bazaie, zera esan daiteke: urte bikoitietan (2002, 2004 eta 2006), antzeko hazkundeak erregistratu dira, % 9-10 inguruko hazkundeak hain zuzen ere; urte bakoitietan (2003 eta 2005), berriz, neurritsuagoak izan dira erregistratutako hazkundeak: % 5etik beherakoak bi kasuetan (% 4,8 eta % 4,3, hurrenez hurren).

Kopuru absolutuetan, 2.007.548 sarrera erregistratu dira. Kopuru horren arabera, hilean batez beste 167.296 sarrera egin dira: urtarrilean erregistratu da baliorik baxuena (102.738 sarrera) eta abuztuan altuena (223.769 sarrera). Horrenbestez, 2,18ko ratioa lortu da.

Urtaroen arabera, udan erregistratu dira sarrera guztien % 31,4.

**R**efenido a la actividad de los establecimientos hoteleros, el año 2006 puede calificarse como uno de los más dinámicos del último quinquenio, junto con 2004, al contabilizarse un 10% más de entradas que en 2005.



Observando las tasas de los últimos cinco años se constata que se trata éste de un período en el que los años pares (2002, 2004 y 2006) han tenido crecimientos similares, en torno al 9%-10%, mientras los impares (2003 y 2005) han experimentado mejoras más contenidas y, en ambos casos, inferiores al 5% (4,8% y 4,3% respectivamente).

En números absolutos se han registrado 2.007.548 entradas lo que supone una media mensual de 167.296, con un valor mínimo de 102.738 entradas en Enero a un máximo de 223.769 en Agosto. Resulta una ratio de 2,18.

En términos de estacionalidad, la temporada veraniega concentra el 31,4% de las entradas.

Sarreraren bilakaera. 2002-2006. Euskadi



Evolución de las entradas. 2002-2006. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileren Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores. INE, Encuesta de Ocupación en Alojamientos Turísticos

Sarrereren urteko aldaketa-tasa. 2005-2006. Euskadi

Tasa de variación anual de las entradas. 2005-2006. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Lurraldeka, gora egin dute hirurek, nahiz eta gorakada nabarmenagoa izan den Bizkaian (+% 15,3): hiru hileko bilakaeran jada antzeman zitekeen nagusitasun hori, batez ere bigarren hiruhilekoan (+% 20) eta azkenekoan (+% 17,5).

Ezin da ahaztu, haatik, 2006an Aste Santua apirillean izan zela (06-II) eta 2005ean martxoan izan zela (05-I), hortaz, oso zaila da 06-II aldiko hazkunde-tasak 05-II aldikoekin alderatzea.

Euskal hiriburuek jasotzen dituzte sarrereren % 62, baina lurralde-esparruak kontuan hartuta, barrualdean baino neurritsuagoa izan da hiriburuetakoa hazkundea (+% 8). Horrela, barrualdean 73.383 sarrera erregistratu dira (+% 16). Barrualdean lortutako hazkundea bereziki nabarmendu da Bizkaian; horrela, Bizkaia bereganatu ditu sarrereren % 82, lurralde-esparru horrek lortutako hobekuntza partikularra +% 34koa delarik.

Por territorios, los tres comparten una trayectoria al alza que resulta de mayor intensidad en Bizkaia (+15,3%), donde trimestralmente ya había muestras de su tirón, especialmente destacado en el segundo (+20%) y en el último trimestre (+17,5%).

Conviene recordar, sin embargo, que, en 2006, la Semana Santa coincidió en Abril (II-06) y en 2005 en Marzo (I-05) por lo que las tasas de crecimiento de II-06 no son estrictamente comparables con II-05.


Las capitales vascas reciben el 62% de las entradas pero como ámbito presentan una evolución más contenida (+8%) que el interior, donde se han producido 73.383 entradas más (+16%). Se trata de un crecimiento, éste del interior, muy concentrado en Bizkaia que acoge el 82% de las nuevas entradas, con una mejora particular del ámbito del +34%.

Ekainetik hilero egin du gora bidaiariaren sarrera-kopuruak: % 10 gutxienez, abuztuan izan ezik (+% 5). Tasarik altuena azaroan erregistratu da (+% 13).

Desde Junio, las entradas de viajeros han crecido todos los meses por lo menos un 10%, excepto en Agosto (+5%). La tasa más alta corresponde a Noviembre (+13%).

Bidaiariaren sarrereren hileko bilakaera. 2004-05-06. Euskadi

Evolución mensual de las entradas de viajeros. 2004-05-06. Euskadi





Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.



## GAU KOPURUA | PERNOCTACIONES

Igarotako gauen bilakaera. 2002-2006. Euskadi

Evolución de las pernoctaciones. 2002-2006. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

**G**au-kopuruari dagokionez, 2001etik etengabe egin da gora, nahiz eta urtetik urtera aldatu egiten den hazkunde-erritmoa: 2003an +% 4 izan zen bitartean, +% 11 izan zen 2004an.

2006an gau-kopuruak gora egin du eta sektorean inoiz lortu den kopururik altuena erregistratu da (3.858.440); era berean, bosturteko osoko urte arteko hazkunde-tasarik altuena erregistratu da oraingoan (+% 11,5).

Bizkaian erregistratu dira gau horien % 45; ia % 41 Gipuzkoan eta % 14 Araban.

**E**n cuanto a las pernoctaciones, su número no ha dejado de crecer desde 2001 aunque lo ha hecho a un ritmo anual desigual que ha oscilado entre un +4% en (2003) a un +11% (2004).

Este año 2006 se mantiene también la tendencia expansiva, con una cifra que, de momento, es la máxima conocida en el sector (3.858.440) como lo es también, en el quinquenio, la tasa de crecimiento interanual (+11,5%).



El 45% de estas pernoctaciones se han registrado en Bizkaia, casi el 41% en Gipuzkoa y el 14% en Álava.

2006an 3.858.440 gau erregistratu dira euskal hoteletan, hortaz, % 11,5 hobetu da 2005ean erregistratutako kopurua. Kopuru horrek azken bost urteetako hazkunde-tasarik altuena erakusten du.

Los hoteles vascos han contabilizado en 2006 3.858.440 pernoctaciones y aumentan un +11,5% las de 2005. Supone la tasa más alta de crecimiento de los últimos cinco años.

Igarotako gauen urteko aldaketa-tasa. 2005-2006. Euskadi


Tasa de variación anual de las pernoctaciones. 2005-2006. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Igarotako gau-kopuruaren hileko bilakaera. 2004-05-06. Euskadi


Evolución mensual de las pernoctaciones de viajeros. 2004-05-06. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

*Barrualdean gau-kopuruak gora egin du berriro. 2002an gau guztien % 22 barrualdean erregistratu ziren bitartean, orain % 26koa izan da portzentajea; hiriburuetan, bien bitartean, gutxitu egin da portzentaje hori (% 65etik % 61,5era).*

*La zona interior continúa su expansión turística. Si en 2002 acogía el 22% de las pernoctaciones ahora alberga el 26%; mientras, las capitales pierden peso (de un 65% a un 61,5%).*



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

**B**izkaiak erakutsi du bilakaerarik positiboena (+% 16,5). Horrela, Euskadin ia 400.000 gau erregistratu dira eta horietatik % 62 bereganatu ditu Bizkaiak. Gipuzkoan +% 9 inguruko hazkundea lortu da eta Araban +% 4,5koa.

Esparru geografikoak kontuan hartuta, hiriburuak orain arteko nagusitasunari eutsi diote eta erregistratutako gauen % 61,5 bereganatu dituzte; baina 2006an, kostaldean (+% 12) eta barrualdean (+% 20) lortu diren hazkundeak hiriburuetan (+% 8) lortutakoen gainetik geratu dira. Bilbon % 10 gau gehiago erregistratu dira, Donostian % 9 gehiago eta Gasteizen, azkenik, % 3,5 gehiago.

Barrualdeari dagokionez, 163.834 gau gehiago erregistratu dira –hau da, guztizko hazkundearen % 41–, eta gau horietatik ia 118.000 (% 72) Bizkaian erregistratu dira (+% 37).

**E**l que mejor evoluciona es Bizkaia (+16,5%) que de las casi 400.000 pernoctaciones más recibidas en Euskadi, acoge el 62%. Mientras, la mejora en Gipuzkoa es de casi un +9% y un +4,5% en Álava.

Por zonas geográficas, las capitales mantienen su hegemonía como ámbito turístico y concentran el 61,5% de las pernoctaciones, pero, en 2006, tanto el litoral (+12%) como, sobre todo, el interior (+20%) crecen más que las propias capitales (+8%). Concretamente Bilbao aumenta un +10% sus pernoctaciones, le sigue Donostia-San Sebastián (+9%) y, finalmente, Vitoria-Gasteiz (+3,5%).


En relación al interior hay que destacar que registra un aumento absoluto de 163.834 pernoctaciones –es decir el 41% del incremento total– de las cuales casi 118.000 (72%) son en Bizkaia (+37%).

Igarotako gauen espazio-banaketa. 2006. Euskadi, lurralde historikoak eta esparru geografikoak

Distribución espacial de las pernoctaciones 2006. Euskadi, Territorios Históricos y Zonas geográficas

Igarotako gauen hiru hileko bilakaera. 2006. Euskadi eta lurralde historikoak

Evolución trimestral de las pernoctaciones. 2006. Euskadi y Territorios Históricos



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

**B**atez besteko kopuruei erreparatuz, hilean 321.537 gau inguru erregistratu dira: urtarrilean lortu da kopururik baxuena (178.385), eta abuztuan altuena (515.133). Hau da, urtarrilean erregistratutako gau bakoitzagatik 2,89 gau erregistratu dira abuztuan eta 2005eko ratioa zertxobait hobetu da (2,7).


Hiruhileko guztietan bilakaera positiboa izan bada ere, 06-IV hiruhilekoko emaitzak azpimarratu behar dira: +% 15,5. Hazkunde hori erabakigarria izan da udako hilabeteetan lortutako emaitzetan: udan ez da lortu gau-kopurua areagotzea eta, gainera, zertxobait atzera egin da eta, ondorioz, 2005ean % 34,1eko portzentajea erregistratu zen bitartean, % 33,7koa izan da 06-III al-dian erregistratutakoa.

**P**or término medio se han recibido 321.537 pernoctaciones mensuales, fluctuando su número entre 178.385 (Enero) y 515.133 (Agosto). Es decir por cada pernoctación de Enero se han recibido 2,89 en Agosto, acentuándose ligeramente la ratio de 2005 (2,7).

Aunque todos los trimestres evolucionan positivamente, destaca IV-06 con una mejora del +15,5% que contribuye decisivamente a que la estacionalidad veraniega no sólo no aumente sino que experimente un ligero descenso y III-06 pase de representar un 34,1% en 2005 a un 33,7%.

Igarotako gauen aldaketa-tasa, aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta. 2005-2006. Euskadi eta lurralde historikoak

Tasa de variación de las pernoctaciones respecto al mismo trimestre del año anterior. 2005-2006. Euskadi y Territorios Históricos




*Apirilean Aste Santuan izandako eragina (+% 33) kanpo utzita, 06-IV hiruhilekoa da guztietan hazkunderik handiena lortu duena; ildo horretan, abenduan erregistratu dira emaitzarik altuenak (+% 18) eta ondoren gertatu dira urria (+% 16) eta azaroa (+% 13).*

*Sin contar el efecto de Semana Santa en Abril (+33%), IV-06 es el trimestre más expansivo con Diciembre a la cabeza (+18%) seguido por Octubre (+16%) y Noviembre (+13%).*

Igarotako gauen hiru hileko bilakaera. 2006. Euskadi eta esparru geografikoak


Evolución trimestral de las pernoctaciones. 2006. Euskadi y Zonas geográficas



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.


Igarotako gauen aldaketa-tasa aurreko urteko hiruhileko berdinarekin. 2005-2006. Euskadi eta esparru geografikoak

Tasa de variación de las pernoctaciones respecto al mismo trimestre del año anterior. 2005-2006. Euskadi y Zonas geográficas




Igarotako gauen bilakaera jatorriaren arabera. 2002-2006. Euskadi

Evolución de las pernoctaciones según procedencia. 2002-2006. Euskadi



Igarotako gauen urteko aldaketa-tasa, jatorriaren arabera. 2005- 2006. Euskadi eta lurralde historikoak

Tasa de variación anual de las pernoctaciones según procedencia. 2005-2006. Euskadi y Territorios Históricos



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileren Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

400.000 gau gehiago erregistratu dira eta horietatik 256.000 (% 64,2) Estatutik etorritako turistek gurean igarotako gauak izan dira. Estatuko turismoak % 13ko hazkundera ezagutu du eta lehen aldiz lortu du bi milioi gauren kopurua gainditzea.

De las 400.000 nuevas pernoctaciones recibidas, 256.000 (64,2%) se deben al turismo del resto del Estado que crece un +13% y supera por primera vez los dos millones de pernoctaciones.

Beste autonomia-erkidego batzuetako turistek egin dituzte gau guztien % 57; % 29 turista atzerritarrek egin dituzte eta gainerako % 14 EAEko biztanleek.

Bezeroen osareri erreparatuz, denboran gehiegi aldatu ez dela esan daiteke, baina azken bosturtekoan, turismo atzerritarrek ezagutu duen hazkunderitua geldoagoa izan da eta, ondorioz, pisua galdu du turista atzerritarren taldeak (2001ean eta 2002an % 31koa izatetik 2002an % 29ra pasa da), eta Estatuko turistek irabazi egin dute (% 53tik % 57ra).

Aurten emaitzak ez dira asko aldatu eta Estatuko turismoak % 13ko hazkundera ezagutu duen bitartean, % 9,7ko hazkundera ezagutu du turismo atzerritarrek eta % 9koa, azkenik, EAEko turisten taldeak.


El turismo de otras CC.AA. protagoniza el 57% de las pernoctaciones mientras otro 29% corresponden al turismo extranjero y el 14% restante a los propios residentes en Euskadi

Esta composición de la clientela muestra en el tiempo una estabilidad bastante elevada, pero en el último quinquenio, el turismo extranjero crece a ritmo más lento y va, en consecuencia, perdiendo peso (de un 31% en 2001 y 2002 al actual 29%) para ganar el del resto del Estado (de un 53, % a un 57%).

Este año ocurre igual y el turismo estatal crece un +13% frente a un +9,7% que lo hace el extranjero y un +9% el propio residente.

Igarotako gauen bilakaera jatorriaren arabera. 2002-2006


Evolución de las pernoctaciones totales según procedencia. 2002-2006



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileren Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Igarotako gauen banaketa jatorriaren arabera. 2006. Euskadi

Distribución de las pernoctaciones según procedencia. 2006. Euskadi



\*: Elkarte Autonomo edo herrialde bat isolatuta ez da %3ra heltzen./Ninguna CC.AA. o país alcanza aisladamente el 3%.  
Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileren Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Madrilarrak Araban erregistratu du hazkunderik nabarmenena (+% 10,8); Bizkaian katalanak izan dira nagusi (+% 17,3) eta Gipuzkoan andaluziarrak (+% 32) eta valentziarrak (+% 38).

Álava registra la tasa más alta de crecimiento de madrileños (+10,8%) mientras Bizkaia lo hace de catalanes (+17,3%) y Gipuzkoa de los dos clientes en clara expansión andaluces (+32%) y valencianos (+38%).

Gurera etorritako Estatuko turistaren kasuan, Bizkaian erregistratu da hazkunderik nabarmenena (+% 17), eta lehenengo aldiz gainditu ditu Gipuzkoako emaitzak erregistratutako gau-kopuruari dagokionez; eta hiru segmentuetan, (euskal turistak, Estatuko turistak eta turista atzerritarak), Bizkaia da norako nagusia.

Madrilarrak (+% 5,3) eta katalanak (+% 11,3) izan dira, oraingoan ere, gurera etorritako Estatuko bezero nagusiak, baina bilakaerari erreparatzen bazaio, valentziarrak (+% 24,7) eta andaluziarrak (+% 22,8) izan dira nagusi berri ere.

Atzerritarren artean frantsesak (+% 6,4), britainiarrak (+% 3,6) eta alemanak (-% 8,1) dira nagusi, baina beste talde batzuk baino tasa baxuagoak dituzte, besteak beste, portugaldarrek (+% 50) baino baxuagoak.


Donde más ha crecido la afluencia de viajeros del resto del Estado ha sido en Bizkaia (+17%) que, por primera vez, supera a Gipuzkoa en estas pernoctaciones y se convierte en el primer destino de los tres segmentos (vasco, resto del Estado y extranjero).

Madriños (+5,3%) y catalanes (+11,3%) se mantienen un año más como los primeros clientes estatales pero por su evolución destacan, como lo hicieron también en 2005, los valencianos (+24,7%) y los andaluces (+22,8%).

Entre los extranjeros, franceses (+6,4%), británicos (+3,6%) y alemanes (-8,1%), aunque siguen siendo los más importantes, presentan tasas más moderadas que otros más minoritarios como los portugueses (+50%).

Bezero nagusien bilakaera-tasak. 2005- 2006. Euskadi

Tasas de evolución de los principales clientes. 2005- 2006. Euskadi





Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileren Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

## BETETZE MAILA | GRADO DE OCUPACION

Betetze-mailaren bilakaera. 2002-2006. Euskadi

Evolución del grado de ocupación. 2002-2006. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileren Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Gurean igarotako gau-kopuruaren hazkundeak plaza-kopuruak izandakoa gairiditu duela kontuan hartuta, urteko betetze-mailak 2005eko batez bestekoa (% 47,6) gairiditu du eta % 48,3ra iritsi da (+% 1,5). 2005eko plaza-kopuru bera eskaini izan balitz, % 53,1ekoa zatekeen urteko betetze-maila (+% 11,5).

Betetze-mailarik altuena –hiru hileko emaitzarik bikainenaren ildotik– Gipuzkoan erregistratu da (% 53,4); gainera, Gipuzkoakoa da gutxien zabaldu den eskaintza (+% 4,3).

En un escenario en el que las pernoctaciones han crecido más que las plazas, el grado de ocupación anual consigue superar el promedio de 2005 (47,6%) y se sitúa en un 48,3% (+1,5%). Con las mismas plazas de 2005 la ocupación anual hubiese sido del 53,1% (+11,5%).


La ocupación más alta –dando continuidad a sus mejores resultados trimestrales– corresponde a Gipuzkoa (53,4%), territorio donde, un año más, menos ha crecido la oferta (+4,3%).

Urteko betetze-maila % 48,3koa izan da. Indizierik altuenak hiriburuetan lortu dira hiru lurraldeen kasuan eta % 48,6 (Gasteiz) eta % 57,6 (Donostia) artekoak izan dira erregistratu diren portzentajeak.

Ocupación anual del 48,3% de las plazas. Los índices más altos corresponden en los tres territorios a las capitales cuyas ocupaciones anuales oscilan entre el 48,6% (Vitoria-Gasteiz) y el 57,6% (Donostia-San Sebastián).


Betetze-maila esparru geografikoa. 2006. Euskadi eta lurralde historikoak

Grado de ocupación según zonas geográficas. 2006. Euskadi y T.H.H.



Betetze-mailaren urteko hazkundera esparru geografikoa. 2005-2006. Euskadi eta lurralde historikoak

Incremento anual del grado de ocupación según zonas geográficas. 2005-2006. Euskadi y T.H.H.





Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileren Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.



Betetze-mailaren hiru hileko bilakaera. 2006. Euskadi

Evolución trimestral del grado de ocupación. 2006. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

*2005ean bezalaxe, Donostiak lortu du, oraingoan ere, urte osoko betetze-mailarik altuena: 06-III aldiari dagokio eta hiruhileko horretan eskainitako plazzen % 78,4 betetzea lortu da batez beste.*

*Al igual que en 2005, Donostia-San Sebastián ostenta el máximo valor de ocupación registrado en el año. Corresponde al III-06 donde consigue de promedio trimestral una ocupación del 78,4% de sus plazas.*

Urte arteko aldaketari dagokionez, Gipuzkoako hiriburuan % 57,6koa izan da urteko betetzea eta bertan lortu da bilakaerarik positiboena (+% 5,6); hazkunde horretan eragin handia izan du bertan igarotako gau-kopuruaren gorakadak (+% 8,6%), bai eta plaza-kopuruaren gorakadak ere (+% 2,9), nahiz eta azken hori neurritsuagoa izan den.

Haatik, Gasteizen eta Bilbon urteko betetzeak ez du ia aldaketarik ezagutu (% 48,6 eta % 50, hurrenez hurren), antzekoa izan baita plaza-kopuruak eta gau-kopuruak ezagutu duten hazkundea: +% 3 Gasteizen eta +% 10 Bilbon.

Aitzitik, Arabako barrualdean eta kostalde gipuzkoarrean eskaintzak izan duen hazkundeak (+% 10,4 eta +% 9,3) indarra kendu dio gau-kopuruak izandakoari (+% 7,6 eta +% 8,9, hurrenez hurren), eta betetzeak behera egin du bietan.

Hiru hileko betetzeak izan dituen gorabeherei erreparatu, gehienezko eta gutxienezko betetzea 26,8 puntu ingurukoa izan da (25,7 2005ean). Alde hori 34,35 puntukoa da Gipuzkoan, hortaz, beste bi lurraldeekin alderatuta, udan Gipuzkoan emaitza hobeak lortu direla esan daiteke.

En términos de variación, la capital guipuzcoana con una ocupación anual del 57,6%, es el ámbito que evoluciona más positivamente (+5,6%); a ello contribuye el aumento de las pernoctaciones (+8,6%) pero también un crecimiento de sus plazas (+2,9%) comparativamente más sostenido.

Sin embargo, tanto Vitoria como Bilbao apenas modifican su ocupación anual (48,6% y 50% respectivamente) al haber crecido las plazas y las pernoctaciones en un orden de magnitud similar: +3% en el caso de Vitoria y +10% en Bilbao.



Por el contrario, en el interior alavés y en el litoral guipuzcoano, el efecto de la expansión de la oferta (+10,4% y +9,3%) neutraliza el crecimiento de las pernoctaciones (+7,6% y +8,9%, respectivamente) y la ocupación baja en ambos ámbitos.

Atendiendo a las fluctuaciones de la ocupación trimestral, resulta una variación entre máxima y mínima ocupación de 26,8 puntos (25,7 en 2005). Esta diferencia crece hasta 34,35 puntos en Gipuzkoa, lo que corrobora su mayor estacionalidad veraniega respecto a los otros dos territorios.

## BATEZ BESTEKO EGONALDIA | ESTANCIA MEDIA

Batez besteko egonaldiaren bilakaera. 2002-2006. Euskadi

Evolución de la estancia media. 2002-2006. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoa Hartzailen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

**N**ahiko egonkor agertu da batez besteko egonaldia, baina 2003tik pixkanaka luzatzen joan da eta 2006an 1,92 egunera iritsi da, aurreko egonaldia +% 1,4 hobetuz.

Urtean aldatuz joan da egonaldia: 1,8 egunetik (06-I) 2,07 egunera (06-III), eta Gipuzkoan erregistratu dira baliorik altuenak eta, ondorioz, bertan erregistratu da urteko batez bestekorik altuena (2,06 egun).

Zonaren arabera, kostaldean luzatu egin da urteko batez bestekoa (2,18 egun, +% 4,5) eta 2,33 egunekoa izatera iritsi da udan (+% 2,6).

**L**a estancia media es muy estable pero desde 2003 tiende a aumentar ligeramente y en 2006 el promedio anual de 1,92 días mejora +1,4%.

A lo largo del año, la estancia ha variado desde 1,8 días (I-06) hasta 2,07 (III-06) correspondiendo trimestralmente a Gipuzkoa los valores más altos y, en consecuencia, también el promedio anual (2,06 días).


Por zonas, se alarga en el litoral con 2,18 días de promedio anual (+4,5%) y 2,33 en verano (+2,6%).

Batez besteko egonaldia luzatu egin da zertxobait eta 1,92 egunekoa da urteko batez bestekoa. Lurraldeen arabera, 1,74 eguneko batez bestekoa erregistratu da Araban (-% 3,4) eta 2,06 egunekoa Gipuzkoan (+% 4,1).

Ligero aumento de la estancia media que se sitúa en 1,92 días como promedio anual. En los territorios oscila entre un 1,74 días en Álava (-3,4%) y 2,06 en Gipuzkoa (+4,1%).

Batez besteko egonaldia esparru geografikoa. 2006. Euskadi eta lurralde historikoak


Estancia media según zonas geográficas. 2006. Euskadi y T.T.HH.



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoa Hartzailen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Batez besteko egonaldiaren urteko hazkundea esparru geografikoa. 2005-2006. Euskadi eta lurralde historikoak



Incremento anual de la estancia media según zonas geográficas. 2005-2006. Euskadi y T.T.HH.





Batez besteko egonaldiaren hiru hileko bilakaera. 2006. Euskadi

Evolución trimestral de la estancia media. 2006. Euskadi



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Hiriburuen artean (1,90 egun)– Donostian erregistratu da egonaldirik luzeena (2,01), eta bera dugu batez bestekoa hobetu duen bakarra (+% 3,2). Hala ere, Bizkaiko kostaldean lortu da bilakaerarik positiboena (+% 6,35) eta ondoren Gipuzkoako barrualdean (+% 4,87).

Bezeroen jatorriari erreparatzen bazaio, beste autonomia-erkidego batzuetatik datorren turismoak egiten ditu egonaldirik luzeenak (1,97 egun), batez ere Gipuzkoan (2,12 egun), non turismo atzerritarrek batez beste 2 eguneko egonaldiak egiten dituen.

Entre las capitales (1,90 días)– la estancia más larga corresponde a Donostia-San Sebastián (2,01) que también es la única que mejora su promedio (+3,2%). Sin embargo el ámbito de evolución más positiva es el litoral vizcaíno (+6,35%) seguido por el interior guipuzcoano (+4,87%).


Atendiendo a la procedencia de los clientes, el turismo de otras CC.AA. es el que más tiempo permanece (1,97 días), sobre todo en Gipuzkoa (2,12 días), donde también el extranjero se queda 2 días de media.

Beste autonomia-erkidego batzuetako turisten batez besteko egonaldia +% 2,5 luzatu da eta, ondorioz, urteko batez bestekoa 1,97 egunera iritsi da. Hiruhilekoak kontuan hartuta, 1,82 (06-I) eta 2,18 (06-III) egun artean mugitu da batez bestekoa.

Se alarga un +2,5% la estancia media del turista de otras CC.AA. que se sitúa en 1,97 días de media anual. Por trimestres ha oscilado entre 1,82 (I-06) y 2,18 (III-06) días.


Batez besteko egonaldia jatorriaren arabera. 2006. Euskadi eta lurralde historikoak

Estancia media según procedencia. 2006. Euskadi y TT.HH.



Batez besteko egonaldiaren urteko hazkundera jatorriaren arabera. 2005-2006. Euskadi eta lurralde historikoak

Incremento anual de la estancia media según procedencia. 2005-2006. Euskadi y TT.HH.





Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

**HOTELEKO PLAZAK | PLAZAS HOTELERAS**

**Hoteleko plazen bilakaera. 2002-2006. Euskadi, lurralde historikoak eta esparru geografikoak**

**Evolución de las plazas hoteleras. 2002-2006. Euskadi, Territorios Históricos y zonas geográficas**



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

**2**006 amaieran 7.981.360 plaza eskaintzen ziren hoteletan (21.867 ohe/legunean). 2005eko eskaintzazarekiko 718.132 plaza berri sortu dira (+% 9,89) eta, ondorioz, 2006 dugu bosturteko osoko urterik dinamikoena.

Plaza berrien % 74 Bizkaian daude, +% 16ko hazkundea lortu delarik; % 9 Araban daude (% 5) eta gainerako % 17, azkenik, Gipuzkoan (+% 4).

Esparrurka, azpimarratzekoa da barrualdea, 355.891 plaza berrirekin (+% 49,6); hiriburuetak eskaintzak, berriz, +% 38ko hazkundea ezagutu du.

**A** finales de 2006 la capacidad hotelera ascendía a 7.981.360 plazas (21.867 camas/día). Respecto a la oferta de 2005, se han creado 718.132 nuevas plazas (+9,89%) que hacen de este 2006, el año más dinámico del quinquenio.

El 74% de las nuevas plazas se localizan en Bizkaia, que crece un +16%, mientras otro 9% son alavesas (5%) y el 17% restante, guipuzcoanas (+4%).


Por ámbitos, destaca el interior con 355.891 nuevas plazas (+49,6%) mientras que la oferta en las capitales crece un +38%.

*Bizkaian hotel-eskaintza zabaldu egin da berriro (+% 16,3) eta 2002an plaza guztien % 41 eskaintzetik 2006an % 48ra pasa da. Bien bitartean, Gipuzkoak pisua galdu du (% 43tik % 37ra).*

*Continúa la expansión de la oferta hotelera en Bizkaia (+16,3%) que ha pasado de concentrar el 41% de las plazas en 2002 al 48% en 2006. Mientras Gipuzkoa pierde peso (del 43% al 37%).*

**Hotel en plazen banaketa lurralde historikok eta esparru geografikok. 2006**


**Distribución de las plazas hoteleras según Territorios Históricos y zonas geográficas. 2006**



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailen Inkesta/Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

**Establezimendu eta hotel en plazen urteko hazkundea. 2005-2006. Euskadi eta lurralde historikok**

**Incremento anual de los establecimientos y plazas hoteleras 2005-2006. Euskadi y Territorios Históricos**




## KPI ETA HOTELEN PREZIOEN INDIZEA | IPC E ÍNDICE DE PRECIOS HOTELEROS

**KPI: Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak. Azpitaldea: hotelak eta bestelako ostatuak. Urteko aldaketa-tasa. 2006. Euskadi eta Estatu**

**IPC: Grupo hoteles, cafés y restaurantes. Subgrupo hoteles y otros alojamientos. Tasa de variación anual. Euskadi y Estado. 2006**

- Estatua/Estado: Hotel, kafetegi eta jatetxeak/Hoteles, cafés y restaurantes
- Euskadi: Hotel, kafetegi eta jatetxeak/Hoteles, cafés y restaurantes
- - - Estatua/Estado: Hotel eta bestelako ostatuak/Hoteles y otros alojamientos
- - - Euskadi: Hotel eta bestelako ostatuak/Hoteles y otros alojamientos



Iturria/Fuente: INE. Índice de Precios de Consumo. Base 2001

**E**uskadiko hotel, kafetegi eta jatetxeen taldearen KPIri dagokionez, % 3,7 (ekaina eta azaroa) eta % 4,4 (otsaila) inguruan kokatu da indizea, eta ez du Estatukoa gainditu. Hala ere, hotelen berariazkoak gorabehera handiagoak ezagutu ditu: -% 3,8 (martxoa) eta +% 7,3 (apirila) inguruan kokatu da; maia-tzean, gainera, Estatukoa gainditu da.

Hotelen prezioen indizeari dagokionez, nabarmen egin du gora udan, eta abuztuan erregistratu da baliorik altuena (124,4).

**E**l IPC del grupo de hoteles, cafés y restaurantes en Euskadi ha variado entre un 3,7% (Junio y Noviembre) y un 4,4% (Febrero) manteniéndose mensualmente por debajo del IPC estatal. Sin embargo el específico de hoteles muestra mensualmente mayor variación oscilando entre -3,8% (Marzo) y +7,3% (Abril); desde Mayo, además, supera mensualmente al estatal.

En cuanto al Índice de precios hoteleros experimenta una fuerte subida en los meses veraniegos con máximo valor en Agosto (124,4).


*Apirila, Aste Santuarekin (% 7,3), eta urria (% 6,1) dira Euskadin hotelen berariazko KPIk hazkunde handien ezagutu duen hilabeteak. Hotelen Prezioen Indizeak, berriz, udan erregistratu ditu baliorik altuenak (120,2 eta 124,4 artean).*

*Abril, con Semana Santa (7,3%), y Octubre (6,1%), meses de mayor crecimiento en Euskadi del IPC específico de hoteles. Mientras el Índice de Precios Hoteleros presenta sus máximos valores en verano (entre 120,2 y 124,4).*

**Hotelen prezioen indizea. 2006. Euskadi eta Estatu**

**Índice de precios hoteleros. 2006. Euskadi y Estado**

- Estatua/Estado
- Euskadi





Iturria/Fuente: INE. Índice de Precios Hoteleros 2006

## ARABA | ÁLAVA

Sarrerren bilakaera esparru geografikoka. 2002-2006. Araba

Evolución de las entradas según zonas geográficas. 2002-2006. Álava



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

**2**006an Arabako hotelen eskaintza 62 establezimenduk osatzen dute eta 3.382 plaza/egunean eskaintzen dira (1.234.334 urtean), hau da, euskal eskaintzaren % 15,4.

2005ekin alderatuz, 62.487 plaza berri sortu dira (+% 5,3), eta horietatik % 61 barrualdean daude, bertako eskaintza +% 10,4 hobetu delarik.

Halaber, gora egin du sarrera-kopuruak (+% 8,4) eta gau-kopuruak (+% 4,5); guztizko enpleguak, berriz, 522 pertsona gehiago barne hartzen ditu (+% 3,1), eta % 94 soldatoko langileak dira. Horrela, soldatoko enplegu bakoitzeko 6,86 plaza/egunean da ratioa (6,77 2005ean).

**E**n 2006, la oferta hotelera alavesa la componen 62 establecimientos y 3.382 plazas/día (1.234.334 anuales) que representan un 15,4% de la oferta vasca.

Respecto a 2005 se han creado 62.487 nuevas plazas (+5,3%), de las cuales el 61% están en el interior, que incrementa su capacidad en un +10,4%.



También crecen las entradas (+8,4%) y las pernoctaciones (+4,5%) mientras el empleo total asciende a 522 personas (+3,1%), 94% remuneradas. Supone una ratio de 6,86 plazas/día por empleo remunerado (6,77 en 2005).

313.622 sarrera (+% 8,4) eta 544.925 gau (+% 4,5) erregistratu dira Arabako hoteletan. Bertan eskaintako plaza-kopuruak +% 5,3ko hazkundera ezagutu du eta +% 3,1ekoa, berriz, enpleguak.

313.622 entradas (+8,4%) y 544.925 pernoctaciones (+4,5%) ilustran la actividad turística de los hoteles alaveses cuyas plazas han crecido un +5,3% y su empleo un +3,1%.

Igarotako gauen bilakaera esparru geografikoka. 2002-2006. Araba


Evolución de las pernoctaciones según zonas geográficas. 2002-2006. Álava



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Igarotako gauen hileko bilakaera esparru geografikoa. 2004-05-06. Araba

Evolución mensual de las pernoctaciones según zonas geográficas. 2004-05-06. Álava



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

*Arabako barrualdeak hazkunde nabarmena ezagutu du: 2005ean baino 10.010 gau gehiago erregistratu dira (+% 7,6). Kopuru horretatik % 54 06-IV (azaroa) aldian erregistratu dira.*

*Gasteizen nahiko irregularra izan da hazkundera eta azkenean +% 3,5eko hobekuntza lortu da.*

*Importante expansión del interior alavés que registra 10.010 pernoctaciones más que en 2005 (+7,6%). De éstas, el 54% en IV-06 (Noviembre).*

*Irregular evolución de Vitoria-Gasteiz que finalmente mejora un +3,5%.*

**A**rabaren barruan Gasteizek bereganatu ditu sarreraren % 71 eta gau guztien % 74, eta hiru hileko bilakaera zein urte batetik bestera eza-gutu duen bilakaera positiboagoa izan da sarreraren kasuan (+% 9,5), gau-kopuruaren kasuan baino (+% 3,5).

Hain zuzen, ekainaren 30era bitartean Gasteizen % 7 gehiago izan dira bidaiarien sarrerak, baina emaitza negatiboak lortu dira gau-kopuruaren kasuan (-% 2,4).

Udako emaitzei esker –bi adierazleek % 10etik gorako hobekuntza lortu dute (+% 13 eta +% 11, hurrenez hurren)– eta azken hiruhilekoan lortutako emaitza positiboari esker, urte amaieran bosturteko osoko tasarik altuena lortu da sarrera-kopuruaren kasuan, nahiz eta ezin daitekeen gauza bera esan erregistratutako gau-kopuruari dagokionez.

Barrualdearen kasuan, bilakaera positiboagoa lortu da, gau-kopuruari dagokionez (+% 7,6), 06-I eta 06-II aldietan eta, batez ere, 06-IV aldian lortutako emaitza bikainei esker (+% 19).

**D**entro de Álava, Vitoria-Gasteiz concentra el 71% de las entradas y el 74% de las pernoctaciones y su evolución trimestral –y anual– ha sido más positiva en el caso de las entradas (+9,5%) que de las pernoctaciones (+3,5%).


De hecho, a 30 de Junio, Vitoria-Gasteiz registraba un +7% de entradas de viajeros pero presentaba signo negativo en las pernoctaciones (-2,4%).

Gracias al verano, en el que ambos indicadores mejoraron por encima del 10% (+13% y +11%, respectivamente), y un último trimestre también positivo, la capital cierra el año con la tasa más alta de crecimiento de entradas del quinquenio aunque no de las pernoctaciones.

En el caso del interior, evoluciona mejor que la capital en pernoctaciones (+7,6%) gracias a los buenos resultados de II y III-06 pero sobre todo de IV-06 (+19%).

Igarotako gauen banaketa esparru geografikoa. 2006. Araba


Distribución de las pernoctaciones según zonas geográficas. 2006. Álava



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Igarotako gauen bilakaera jatorriaren arabera. 2002-2006. Araba

Evolución de las pernотaciones según procedencia. 2002-2006. Álava




Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailen Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Beste autonomia-erkidego batzuetako turistak dira nagusi (% 61) eta urte batetik bestera +% 7 gora egin da, eta gorakada bereziki nabarmendu da udan (+% 20). Hiruhileko horretan baxuagoa izan da, ordea, turismo atzeritarrak ezagutu duen hazkundea (+% 4).

El mayoritario turismo procedente de otras CC.AA. (61%) crece un +7% anual y lo hace sobre todo en verano (+20%), trimestre en el que, sin embargo, el turismo extranjero crece menos (+4%).

Igarotako gauen aldaketa-tasa jatorriaren arabera. 2005-2006. Araba eta esparru geografikoak


Tasa de variación anual de las pernотaciones según procedencia. 2005-2006. Álava y zonas geográficas



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailen Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Igarotako gauen banaketa jatorriaren arabera. 2006. Araba

Distribución de las pernотaciones según procedencia. 2006. Álava



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailen Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

Araban erregistratu diren gauen % 60,5 Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritako turistek egin dituzte; % 20,4 turista atzeritarrek egindako gauak dira eta gainerako % 19,1 euskal turistek egindakoak.

Banaketa horrek ez du aldaketa handirik ezagutu denboran, baina azken bosturtekoan Estatuko turisten agerpena gero eta handiagoa dela azpimarratu behar da (% 55 2002an eta % 60,5 2006an).

Aurten udan nabarmendu da, batik bat, hazkundea (+% 20): 2005ean baino 21.809 gau gehiago izan dira oraingoan eta horietatik 18.465 udan erregistratu dira. Hau da, % 85.

Euskal turismoak 2006an ia 7.500 gau gutxiago egin dituen bitartean (-% 6,7), turismo atzeritarrak +% 9ko hazkundea lortu du.

El 60,5% de las pernотaciones alavasas corresponden a turistas procedentes de otras CC.AA. del Estado, el 20,4% a turistas extranjeros y el 19,1% restante al turismo vasco.

Es una segmentación que se mantiene en el tiempo sin grandes cambios, pero se aprecia en el último quinquenio un progresivo aumento del peso del turismo procedente del resto del Estado (del 55% en 2002 al 60,5% en 2006).


Este año su afluencia ha crecido especialmente en verano (+20%) donde se concentran 18.465 de las 21.809 pernотaciones más realizadas respecto a 2005. Es decir el 85%.

Mientras el turismo vasco pierde en 2006 casi 7.500 pernотaciones (-6,7%) y aumenta un +9% el extranjero.



Igarotako gauen hileko bilakaera jatorriaren arabera. 2004-05-06. Vitoria-Gasteiz

Evolución mensual de las pernoctaciones según procedencia. 2004-05-06 Vitoria-Gasteiz



Iturria/Fuente: Eustat. Establezimendu Turistikoa Hartzailen Inkesta./Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.

*Estatuko turistei dagokienez, bilakaera positiboa erakutsi dute ondorengoek: madrildarrek (+% 10), valentziarrek (+% 11) eta andaluziarrek (+% 15); atzerriko turismoaren kasuan, bestalde, portugaldarrek eta britainiarrek (+% 18 eta +% 17) ezagutu dituzte hazkunderik nabarmenenak.*

*Por su evolución positiva destacan en el turismo estatal los madrileños (+10%), los valencianos (+11%) y los andaluces (+15%) mientras entre los extranjeros, portugueses y británicos (+18% y +17%) son los más expansivos.*

**H**ain zuzen, udako hiru hilabeteetan Gasteizen gora egin du Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritako bidaiari-kopuruak eta +% 15 (uztaila) eta +% 33 (iraila) bitarteko hazkundeak erregistratu dira. Barrualdean, hala ere, hobera egin da uztailean (+% 17) eta irailean (+% 30), baina ez da ia aldaketarik egon abuztuan (+% 1). Abuztuan euskal turismoak bakarrik lortu du gora egitea (+% 28).


Turismo atzeritarrari dagokionez, Gasteizek saldo positiboak lortu ditu hilero (+% 13,2), abenduan izan ezik, eta positiboagoa izan da urteko lehen erdian erakutsitako portaera (+% 21), bigarrean erakutsitakoa baino (+% 7).

